

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

### GIPUZKOAN

**1** positibo berri  
**2.282** positibo guztira\*

**1.603** hildako EAEn  
**11** UCIn, EAEn

\*Hernanin 64, Astigarragan 21

### NAFARROAN

**7** positibo berri  
**5.371** positibo guztira

**528** hildako  
**4** UCIn

Sendatuak: EAE 17.778

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



**HERNANI**  
**ESKARALDIA**

en 20tik abenduaren 4ra

euskara  
ari du

## Azaroaren amaieran, Euskaraldia

HERNANI  
EUSKERA

5



## Udan ere, sagardotegi batzuk irekita

URUMEA  
SAGARDOTEGIAK

8-9



«Ulergarria da autoeskolako ikasleen urduritasuna»

HERNANI  
AUTOESKOLAK

10-11

## 38 urteko bideari agur, irripartsu

la lau hamarkada egin ditu Juan Lema pediatrak, Hernaniko anbulatorioan. Erretiroa hartuko du ekainaren 30ean, egindako ibilbidearekin oso pozik, baina agurra egoera honetan izatearen penaz. Haur jaioberriak ikusten bukatu du, behintzat: «hori da niri gehien gustatzen zaidana».

2-4




HERNANIKO OSASUN ZENTROA  
CENTRO DE SALUD DE HERNANI

## Chillida Lekuk ateak irekiko ditu gaur

HERNANI  
CHILLIDA LEKUA

6



## 'Viaje al centro de los sueños' argitaratu du Mikel Insaustik

HERNANI  
LIBURUA

15

## Galarretaren 50garren urteurreneko txapelketa hasiko da gaur

Binakako txapelketa izango da, eta lau bikote ariko dira lehian. Horien artean daude, Endika Barrenetxea hernaniarra, Goikoetxea Vrekin; eta Aritz Zubiri goizuetarra, Urrizarekin. Gainerako bi bikoteak, osatuko dituzte Ansa Iik eta Larrañagak, eta Juaneneak eta Endikak. 16:00etan hasiko da jaialdia, Galarretan.

HERNANI  
ERREMONTA

14

## Ospatu gabeko hileta mezak, asteburuan

Konfinamendu garaian hila zirenen omenez, hileta mezak egingo dituzte gaur eta bihar, bailarako parrokietan; eta baita urteurren mezak ere.

URUMEA  
ELIZA

6



Maskotentzako kalitatezko denda eta aholkularitza

Albaitari-klinika berria

facebook.com/Canexiona



Akarregi poligonoa, 10. Hernani

943 04 87 83

# «Guraso batzuek esan izan didate, 'Lema izatera' jolasten dutela seme-alabek; zoragarria da hori»

Hernaniarrekin «oso eskertuta» hartuko du erretiroa, Juan Lema pediatrak, 38 urteren ondoren: «saiatu naiz pazienteak tratatzen osasuntsu zeudenean ere, eta ez bakarrik gaixo zeudenean», nabarmendu du.

**HERNANI JUAN LEMA**

Ez da hernaniarra, eta ez da Hernanin bizi izan. Baina kalean aurpegi ezaguna da Juan Lema pediatrarena, 38 urtez izan baitu bere bigarren *etxea* Hernanin, anbulatorioan; zaharrea aurrean, eta berrian ondoren.

Ekainaren 30ean hartuko du erretiroa, baina dagoeneko ez da lanean ari, alarma egoerako oporrak pilatu zitzaizkiola eta. Ia lau hamarkada egin ditu Hernanin pediatra, 1982ko ekainaren 2an hasi baitzen lanean Sandiusterriko anbulatorioan; eta aurreneko urteetan, bere kontsulta partikularra ere bazeukan, Larramendi kalean: «garai hartan ez zen askorik kobratzen pediatra bezala, eta ez zidan bizitzeko ematen».

Urte guzti hauetan bizitakoari buruz aritu da Kronikarekin hizketan; eta argazkiak egiten emandako bost minutuetan, hiru emakume gerturatu zaizkio, bere ibilbideagatik zoriondu eta jubilazio on bat izan dezala opatzeri. Bere irripar zabalarenekin erantzun die.

**Ia lau hamarkada Hernanin lanean. Nola hartu duzu erretiroa?**

Ez da espero nuen moduan izan, noski. Zerbait politagoa espero nuen, ia su artifizialekin, erakutsiz pozik eta gustura nijoala. Eta nik ekainaren 23an betetzen ditudanez urteak, ospatu nahi nuen lankide guztiekin, aro berri bati hasiera emateko. Baina ez da posible izango; ez da justua lankideei eskatzea etortzeko, Koronabirusarekin kutsatzeko arriskuarekin, batenbat asintomatikoa delako akaso. Lana ere ez da ohikoa izan azkenaldian.

Oso lan gutxi izan dugu, ohiko lanei dagokienez. Gainera, lankideak zoragarriak dira, eta nire adinagatik arriskua daukanez, esaten zidaten mugatzeko haur jaioberriei edota sanoei errebisioa egitera, inolako gaitasunik izan zezaketenekin kontakturik izan gabe. Beraz, bukatu dut jaioberriak ikusten, eta horixe izan da beti gehien gustatu izan zaidana.

Hemen lanean hasi baino lehen, oraindik ikasten ari nintzenez, erresidentziara joaten nintzen haur jaioberriak ikustera, Salamancako unibertsitateko Pediatriako katedradunak baimenduta eta gomendatuta. Beraz, hasi nintzen jaioberriak ikusten, eta halaxe bukatu dut.

**Izan duzu aukerarik, zure pazienteekin nahi bezala agurtzeko?**

Azkenaldian kontsultara etorri direnekin bai, batzuekin pena haundiz. Eta kalean ere topatu naiz ama batzuekin, erosketetan edo, eta hizketan aritu izan gara tarte batez. Horrelakoak gehiago gertatuko dira, Hernanira etortzen jarraituko baitut, beste modu batera bada ere.

**Eta zer esan dizute paziente horiek?**

Ba egia esan, gauza batzuk ez nituen espero. Esan didate gustura egon direla nirekin, entzun egiten niela sentitu dutela, eta transmititzen niela lasaitasuna, segurtasuna eta konfiantza. Eta hori dena zor diot, nire emaztearekin orain dela urte asko egindako lanari. Psikoterapeuta da bera, eta beti hitz egin izan dugu familia dinamikarekin lotutako gaiei buruz. Berari beharbada ez diot inoiz



Juan Lema pediatra, urtetan bere bigarren 'etxea' izan denaren aurrean.

**«Hemen lanean hasi baino lehen, oraindik ikasten ari nintzenez, haur jaioberriak ikustera joaten nintzen erresidentziara; eta ibilbidea bukatu ere halaxe egin dut, jaioberriak ikusten»**

esan, baina emazteari zor diot pazienteen aurrean egoteko eta haien tokian jartzeko gaitasuna. Urteekin konturatzen zara, familia batek nahi duena horixe dela. Ez da esatea ondo eta sano zaudela, baizik eta albiste txarrak eman behar direnean ere, esperantza pixka bat ematea.

Inork ez dit leporatu, eus-

keraz ez hitz egitea. Hori asko eskertu behar diot herriari, ni onartu izana, naizen bezalako. Bolivian jaio, Salamancan ikasi eta Sevillan formatuta, hona etorri eta ez nintzen ohartu, euskera ikasi behar nuela; formakuntzarekin jarraitu nuen. Eta horretaz damutzen naiz, galdu dudalako asko familiekin eta haurrekin daukazu dinamikatik. Eta bueltak eman izan dizkiot, Marokotik edo Hego Amerikatik etortzen direlako haurrak, eta denbora gutxian ikasten dutelako euskera. Nik dagoeneko ez dauzkadan gaitasun batzuk dauzkate, noski. Baina 4-5 urteko haur batek hitz egin dezakeen euskera mailara iristea posible izan banu, zoriontsu izango nintzen. Azkenerako ez diot horri heldu, murgilduta egon bainaiz ikasten jarraitu eta pediatria eta anbulatorio-ko medikuntza dinamizatzeri.

Barkatu egin didate euskera ez ikasi izana, eta ez dut inoiz izan arazorik paziente bakar batekin ere. Eta gogorak izan ziren 80ko urte haiek...

Oraingo egoerak, agerian uzten du borondate politiko falta, herritarrek izan dezaten kalitatezko osasungintza bat. Eta joan den urtean greba egin bagenuen, ez da gehiago kobratu nahi dugulako; osasungintza sistema hobetzea nahi dugulako baizik. Hurrengo mobilizazioetan, sindikatuak beharrean, herritarrek gonbidatu beharko genituzke bat egitera, nahi dugulako honek funtzionatzea.

**Atzera begiratu, nola definituko zenuke zure ibilbidea?**

Oso pozgarria izan da. Ospitalean lan egiteko formakuntza jaso nuen nik, baina inork ez zintuen prestatzen jendearekin

**Kronika**

Larramendi 11, Hernani  
☎ 943 33 08 99  
688 660 714

**Lege gordailua:**  
SS-1469/2018  
**ISSN:** 2659-5036

**Eposta:**  
kronika@kronika.eus,  
astigarraga@kronika.eus,  
urumea@kronika.eus eta  
publi@kronika.eus.  
**www.kronika.eus**

**Lan-taldea:**  
A. Arbelaitz, O. Egaña, I. Goñi, L. Goñi, A. Isasa, B. Los Arcos, J. Osa, M. Ramirez de Alda, I. Santa Kruz eta J. Zubitur.

**Argitaratzailea:**



KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Larramendi 11, Hernani  
☎ 943 33 27 99  
**Eposta:** dobera@dobera.eus  
**www.dobera.eus**

**Laguntzaileak:**



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

**DOBERA BAZKIDEAK KRONIKALARIAK**

**TOKIKOM**



lan egiteko kalean, eta are gutxiago orain dela 38 urte. Formakuntzan gabezia asko zeuden, pixkanaka betetzen ari direnak. Nik ospitale batean lan egiteko ikasi nuen, eta frustrazio pixka bat eragin zidan hemen lan egin behar izateak, baina kariño handia hartu nion denborarekin. Saiatu naiz, pazientek gaixo zeudenean bakarrik ez, osasunean atenditzen. Eta ospitalean ikasten ez duzun hori, bai ikasten duzula egunerokoan. Oso pozik nago, eta ezagutzak garatzen joan naiz, elikaduran, psikologian, psikiatrian... Badakizu gaia kontrolatzen duzula, eta gurasoekin eta haurrekin hitz egin dezakezula horri buruz. Beti izan dut ikasteko gogoia, eta duela 25 urtetik, urtero joan naiz formakuntza saio batzuetara, Bartzelonara.

Eta aurrerantzean, tokatuko zait ikastea prostatari buruz, erreumari buruz... nire inguruan dauden adinekoak zaintzeko (barrez).

### Geldialdi askoko ibilbidea egin zenuen Boliviatik Hernanira, ezta?

Bai bai. Bolivian jaio nintzen, baina Venezuelan eta Kolonbian ere bizi izan naiz; Frantzian gero, eta han egin nuen Batxilergoa; eta Salamancako unibertsitatean ikasi nuen medikuntza, nire anaiak bezala. Eta ondoren, espezializatzeko formakuntza egin nuen Sevillan. Gure aitak UNESCOn egiten zuen lan Parisen, eta horrek ahalbidetu zigun ikasketak hemen egin ahal izatea. Baina gure helburua zen, gero Boliviara bueltatzea. Kontua da bera Donostiako batekin ezkondu zela, eta ni hernaniar batekin. Beraz, hementxe geratu ginen.

Oposizioak egin nituen, eta plaza lortu nuen. Bi aukera izan nituen lanean hasteko, Hernaniko anbulatorioan edo Egian. Baina hemengoa gehiago gustatu zitzaidan, eta emaztea ere bertakoa da. Horrela hasi nintzen, eta bizitza erdia baino gehiago eman dut bertan. 25 urtez bizi izan naiz Urruñan, Lapurdin; baina Donostiara mugitu gara orain.

### Paziente asko pasa dira zure kontsultatik. Nolakoa da paziente hernaniarra?

Oso paziente jatorra da. Paziente hernaniar asko daude, dena den. Betidanik hemen bizi izan den familia batekoak direnak; 60ko hamarkadan etorri zirenak, Espainiako barnealdetik, Extremaduratik edo; eta azkeneko urteotan, paziente asko dauzkagu kanpotik etorritakoak, Afrikatik, Latinoamerikatik... Baina oro har, balore asko dituen jendea da hemen ezagu-



«Zorte handia» izan duela dio Lemak, hiru eta lau haurreko familiak ezagutu dituelako.

tu dudana. Ikusi dut nola egokitu den familien eta etxeen egitura, nola haunditu den mutilen partehartzea eta inplikazioa familian eta etxeko lanetan. Baina ikusi dut baita ere, penaz, zenbat familia desegin diren. Espainiako barnealdetik etorri diren familiek, identitate bikoitza daukate: batetik, bertakoa, lanaren eta esfortzua identitate; baina bestetik, beraien 'El pueblo' daukate, eta hori aberastasun handia da. Eta etorkinen kasuan, gustatuko litzaidake haien haurrekin lan egin ahal izatea. Horregatik jarri naiz ha-

### «Psikoterapeuta da emaztea, eta berari zor diot pazienteen aurrean egoteko eta haien tokia jartzeko gaitasuna. Beti hitz egin izan dugu familia dinamikarekin lotutako gaiei buruz»

rremanetan Amher elkartearekin, biztanleria bat dagoelako behar handiak dauzkana. Ez dugu ahaztu behar, hala ere, badagoela bertako jendea ere, beharrak badauzkana.

Mota guztietako pazienteak izan ditut. Entzuten badakiten pazienteak izan ditut, informazioa eta azalpenak jasotzen dituztenean. Normalean, jende umila izaten da paziente onena. Paziente ona ez da denari baietz esaten diona, baizik eta informazio gehiago eskatzen duena, eta esaten diozun hori betetzen duena. Baina ez dut inoiz izan arazorik inorrek; dena egin ahal izan dugu, oso egoera zailak ere izan diren arren.

Lankideen eta nire arduran babesa ere izan dut. Askotan, nahi duzuna ez da soldata igotzea, egiten ari zaren lana

errekonoiztea baizik; horrek laguntzen dizu.

### Familia bereko bi belaunaldi ere hartu dituzu kontsultan. Politza izango zen, ezta?

Bai, oso polita. Gainera, zortea izan dut, hiru eta lau haurreko familiak ezagutu ditudala, eta hori zoragarria da. Eta gauza kuriosoak gertatu zaizkit. Nik berorikaz egin diet beti pazienteei. Baina hasi nintzenean kontsultan hartzen gurasoak, haurrak zirenean ezagutu nituenak... Nola egingo nien berorikaz? Oso arraroa izango litzateke. Eta zukaz egiten hasi nintzen haiekin. Gehiago kosta zitzaidan, guraso izan zirenean ezagutu eta dagoeneko aitona-amonak ziren horiekin; baina pixkanaka, haiekin ere zukaz egiten nuen. Eta azkeneko, etortzen zitzaidan ama gazte bat haurrekin, eta amona haiekin; eta bi muxu ematen nizekin amonari, ilusio handia egiten zidalako bera ikusteak. Beraz, pasa naiz berorikaz hitz egitetik, zukaz egin eta bi muxu ematera ongietorri gisa.

Gainera, garai batean, etxetara egiten genituen bisitak; eta horrek ahalbidetzen zuen, familia eta bere ingurua ezagutzera; gurasoak eta aitona-amonak, auzoa, etxea... Eta hori oso polita da. Hori da niretzako familia medikuntza, baina galdu egin da pixka bat. Jende gaztea dago, oso prestatua, hizkuntza ugari hitz egiten dituen, bidaiatu duena, interneta primeran kontrolatzen duena... Baina ez dute aukera izan horrelako gauzak ezagutzeko.

### Nolakoa zen Hernaniko anbulatorioa, zu hasi zirenean? Eta zertan aldatu da, urte hauetan?

Garai hartan Sandiusterrin zegoen anbulatorioa oraindik. Berritu eta margotu berria zegoen. Oso polita zegoen dena. Baina lan egiteko modua ezberdina

zen, eta espazioak ez ziren gaur egungoak. Zorionez, nik bulego bat neukan niretzako, eta beste bat zeukan hain maitatua zen Luis Irigoienek, orduan beste pediatra zenak. Baina toki askotan, mediku batek garaiz bukatu behar zuen, bulego berera beste mediku bat zetorrelako gero. Edo pazienteekin zain egon behar zuten kanpoan, beste medikuak oraindik ez zuelako bukatu. Hemen askatasun gehiago geneukan. Eta anbulatorio berrira mugitzea oso garrantzitsua izan zen; zentro handi bat, polita eta argitasun gehiago zeukana. Garai batean tiqueta hartu behar zenuen txanda hartzeko, eta ez zen justua, oso gaizki zegoen norbait izan zitekeelako artatzen azkenetakoa. Hori asko hobetu da, eta orain, alde aurretik telefonoz deituta, baloratu dezakezu paziente bat

### «Pasa naiz paziente batzuei berorikaz hitz egitetik, zukaz egin eta bi muxu ematera, ongietorri gisa. Hasi zirenean etortzen gurasoak, haurrak zirenean ezagutu nituenak... Nola egingo nien berorikaz?»

### «Ospitalean lan egiteko ikasi nuen, eta frustrazio pixka bat eragin zidan anbulatorioan lan egin behar izateak; baina kariño handia hartu nion denborarekin, eta oso pozgarria izan da»

hartzeko urgentzia. Asko hobetu da komunikazioa. Lehen geneukan zeladorea; eta orain dauzkagu bost administrari, egun osoa ematen dutenak jendeari arreta egiten eta guri lana asko errazten. Pandemia honetan, lan asko egin dugu telefonoaren bitartez; kontsulta asko egin ditugu telefonoz, arriskurik ez izateko familiek, eta primeran funtzionatu du. Asko ikasiko dugu honetatik.

Anbulatorioa bera asko haunditu da. Gero eta langile gehiago izan ditugu, medikuak, erizainak edo administrariak; eta etengabe eguneratu behar izan dugu, hobekuntza teknikoak txertatzeko eta formakuntza garatzeko. Burokrazia lan handia eskatzen du, baina beharrezkoa da. Jendeak galdetzen du, zergatik gauden bertan 08:00etatik 15:00etara, eta lau ordu eta erdiz bakarrik pasatzen dugun kontsulta. Baina beste lan asko dauzkagu egiteko: txostenak egin, deiak... Eta bulegoa ixten duzu, baina zabilza bi pazienterekin buruari bueltaka, hurrengo egunera arte.

### Zein oroitzen daukaz bereziki gogoan, urte guzti hauetatik?

Niretzako garrantzia haundiena daukana, da Izei izeneko haur batena. Duela bi urte, istripu larria izan zuen, eta ez zirudien bizkarrezurreko lesioak konponbiderik zuenik. Baina osasungintza sistema osoaren eraginkortasunak, suhiltzaileen eta Donostiako Ospitaleko pediatriako zainketa intentsiboekin, errekuperatzea lortu du. Hunkigarria izan da familiaren



*Uztailetik aurrera ordutegi berria*  
*Asteazkenetik igandera*  
*Karta, bazkari kontzertatuak eta parrilla*  
*Sagardo aukera zabala*

*Nagusia, 57 - Hernani 943 55 11 37*

sendotasuna eta adorea, etengabeko borroka, inork espero ez zuena lortzeko. Izeiren esfortzua ikaragarria da; miresmen haundia diot. Eta Hernani. Koadrila, lagunak... Zenbat errespetu, elkartasun eta konpainia! Pertsonen kalitatearen adibide bat da hori, eta horrela bai, izango dugu etorkizuna.

Burura datorrit, baita ere, neska txiki batena. Bisita egin nion, eta berehala jakin nuen leuzemia zeukala. Baserri batean bizi ziren, eta bisitatzeraz joaten nintzen. Heriotza parte bat egin dudana aldi bakarra izan zen hura. Baina maitagarria zen. Familiak haur bat galdu zuen, eta sana izaten da horrelakoe-tan, iraganarekin eten eta beste mediku bat bilatzea. Baina niregana bueltatu ziren, hitz egin genuen gertatutakoaz, eta aurrera jarraitu dugu. Horrek asko ematen ditu. Hori da egoera bat, dramari dagokiona.

Baina oroitzen politen ar-tean, aipatuko nuke ikusi izana emakumeek bereziki, ama direnean, daukaten poz hori. Beti gustatu zait ikustea, elkarrekin egingo duten bizitza berri horren hasiera.

Eta noski, gogoan ditut nire lankideak. Jende zoragarria ezagutu dut, bai ospitalean eta bai ambulatorioan. Guztiok ezagutzen dugu elkar, ez gare-lako asko, eta tratua gertukoa da. Orain dela bi urtetik, saio klinikoak egin ditugu ospitalekoekin, bideo-dei bitartez. Lankide batek gai bat prestatu eta aurkezten du, eta eztabaida egiten dugu ondoren. Eta egin dugun azkenurreko saioan, 67 pediatra geunden konektatuta; eta bukaeran, aurkezpena egin zuenak, jakinarazi zuen jubilatzeraz nindoala. Horren ondoren, batzuek deitu egin zidaten, eta beste batzuek idatzi, esanez poza eman ziela ni ezagutu izanak. Horrek asko balio du; niretzako omenaldi moduko bat izan zen.

Beste lankide batzuek, berri-egun batean bideo-dei bat egin zidaten, eta ordu laurden batez aritu ginen hizketan. Oso polita da hori. Emozionatu egiten nauten errekonozimenduak dira horiek.

Badira gurasoak, esan izan didatenak beraien haurrek etxean jolasten dutenean mediku izatera, esaten dutela 'Lema izatera' ari direla jolasten. Zoragarria da.

**Pandemia baten erdian hartu behar izan duzu erretiroa. Zeinek esan behar zizun...**

Erabat ezustean harrapatu gaitu honek, bai. Urte guzti hauetan, ez dut inoiz jantzi mantala, gertukoagoa iruditzen zitzaidalako. Ba guzti honekin, hasi nintzen

**«Urte guzti hauetan, ez dut mantala jantzi, gertukoagoa iruditzen zitzaidalako. Eta bukatu dut, mantala ez ezik, maskarilla eta guanteak jantzita, eta eskuak garbitzen egunean 50 aldiz»**

mantala jantzten, eta bukatu dut maskarillarekin, guanteekin, eta eskuak egunean 50 aldiz garbitzen. Oso kezkatuta egon gara, gertatzen ari zenarekin eta gertatu zitekeenarekin. Familia askori esan behar izan diegu, laneko baja eskatzeko badaezpada ere, eta etxean gertatzeko. Eta esaten dizute, haurrak katarro bat daukala, ezin dela izan Koronabirusa. Baina pautak oso zorrotzak jarraitu behar genituen, helburua lortzeko. Eta uste dut nahiko ondo lortu dela, baina sakrifizio haundia eginez. Jendea oso ausarta izan da.

**Nola bizitu duzue?**

Kezka, beldurra... Lankideak eta lagunak dauzkazu borrokaren aurreneko lerroan. Haiek dauzkazu buruan, eta ez da erraza. Niri politena tokatu zait, haur jaioberriak eta osasuntsuak ikustea. Gertatu zait, adibidez, haur bati errebisioa egin eta txertoa jartzea. Eta hurrengo egunean deitzen dizu amak, esanez sukar pixka bat izan duela; eta esaten diozu normala dela hori. Baina kontatzen dizu, haurra bainatzerakoan konturatu dela, usaimena galdu duela. Hori Koronabirusaren sintoma garbi bat da, eta kontsultan 20 minutuz egon ginen elkarrekin, maskarillarekin izan arren. Probak egiteko prozedura hasi genuen berarekin, noski. Eta handik bi astez deitu zuen, galdetzeko ea denak ondo geunden, eta inor kutsatu ote zuen. Zorionez ez zen inor kutsatu.

Edo beste haur batekin gertatu zitzaidan bezala. Sukarra hartu nion, eta dezima batzuk zeuzkan. Beraz, ez nuen gehiago ikutu, eta lankideei deitu nien, protokoloa martxan jartzeko. Mantala haundia jantzi behar izan nuen, guante luzeak, maskarilla, pantaila... Eta horrela bukatu nuen errebisioa. Horrelako gauzak gertatzen dira. Kutsatzeko arriskuan zaude zu, zure lankideak, eta ondoren etxera joan behar duzu. Zaila da hori. Eta ni ez naiz zaharra sentitzen, baina 67 urte beteko ditut, eta arrisku taldeetako naiz.

Prest egon beharra daukagu, beste modu batera hasi beharko dugulako lanean. Jendea lasaitu



Juan Lema, irripartsu, bere paziente izandako emakume batek «jubilazio on bat» opa ondoren.

behar dugu, baina horretarako, aurrena guk egon behar dugu lasai.

**Zein egoeratan uzten duzu Hernaniko ambulatorioa?**

Langile askorekin, inor ez baita gaixotu Koronabirusarekin, Zaharren Egoitzan bezalaxe. Eta hori da, bertako langile guztien zaintza, zorrotasun eta profesionaltasunaren ondorio. Orain, ikasi beharko dugu beste modu batera bizitzen eta lan egiten. Haurrak eskolara bueltatzearrekin, udazkenean, arriskuak ugarituko dira, eta ez dugu jakingo nola jokatu. Nire esperientziarekin, baieztatu dezaket, oporraldiak daudenean gaixotzen diren haurren kopurua izugarri txikitzen dela; eta aldiz, klasera bueltatu eta bost egunetara, gaixotzen hasten dira. Hori da normala, naturala. Eta beraz, udazkenean klasera bueltatzen direnean, gaixotu egingo dira. Zer egingo dugu, orain arteko neurriekin jarraitu? Sukarra daukaten haur guztiei PCR proba egingo diegu? Gurasoen lanposturako mehatxu bilakatuko dira, eta gurasoek ez dute abixatu nahiko, haurrak sukarra daukala. Zergatik? Haurrak sukarra izanez gero, PCR kontrola, eta 48 ordutan izango ditugu emaitzak; baina bitartean, gurasoak etxean konfinatuta, eta laneko baja eskatu dezatela. Nola bideratuko dugu hori?

Urrian eta azaroan, izango ditugu Koronabirusa, gripea eta bronkiolitisa. Ez dakit nola kudeatuko den hori dena, baina espero dut jarraibide zehatzak emango dituztela, jendea ez beldurtzeko. Dirudenez, uste zena baino arrisku gehiago daukate haurrek birusa hartzeko eta transmititzeko. Baina kontuz ibili beharko dugu, eta osasungintzan ezingo dute gertutasun berarekin lan egin. Maskarilla bat jartzeak, distantzia bat markatzen du. Eta berdin gertatuko

zaie hurrei eskolan; ezingo dituzte lagunak ikutu edo besarkatu. Nola egingo diezu hori? Egin beharko da, baina ez dago ondo.

**Esku onetan geratuko da ambulatorioa?**

Bai, zalantzarik gabe. Oso langile zentzudunak, zorrotzak eta ulerkorak dira denak, garbiketaz arduratzen direnak, administrariak zein mediku eta erizainak. Pediatrian, zehazki, Miner doktoreak urteak daramazki bertan, eta Aristizabal doktoreak esperientzia haundia dauka. Eta nire tokia hartuko duenak, Maria Letonak, sekulako inbidia ematen dit. Oraintxe bukatu ditu ikasketak, eta lanean hastera doa. Dena dauka aurretik, nolako zortea! Esaten

**«Hilabete hauetan, niri politena tokatu zait, haur jaioberri eta osasuntsuak ikustea. Baina lankideak eta lagunak dauzkazu borrokaren aurreneko lerroan. Haiek dauzkazu buruan, eta ez da erraza»**

diot, zenbat ikasi ahal izango duen! Nirekin egon da denbora batez lanean, funtzionamendua eta lantaldea ezagutzeko, eta oso ondo egokitu da. Jendea oso ondo formatuta dator. Faltako zaiena, nahiz eta ordenagailuetan idatzita egon, izango da garai batekoaren ezagutza, nola ziren gauzak orduan. Nola bizi ziren, familien historia, aitona-amonenak, ohiturak... Familia bat ondo ezagutu arte, hori guztia ezin duzu jakin.

Hernanin mediku izateak berezitasunak dauka. Jendeak bizitza egiten du herrian, eta

ikusten dituzu haurrak txikitik elkarrekin; Haurreskolatik ezagutzen dute elkar, bizitza osoa egingo dute elkarrekin, eta hori oso polita da. Hirietan, haur bakoitza eskola batera joango da, eta asko galtzen dute horrela auzoetan. Identitate bat edukitzea oso garrantzitsua da, eta Hernanin hori lortzen dute haurrek. San Joanak bezalako festa batzuek, herria elkartzen dute, eta pena da orain nahi bezala ezin ospatzea. Adinekoak gogoratzen dituzte duela 50 urtetako San Joanak, Tilosetako dantzaldiekin.

Gure alaba Hernanin bataiatu zuen, gu ezkondu gintuen apaiz berberak; eta berak ezkondu zituen nire aita-amaginarrebak, eta nire koinatu-koinatak bataiatu. Historia dago herri honetan.

**Eta aurrerantzean, zer?**

Ba gauza gehiago egiteko gogoak daukat; eta adibidez, astelehenean Amherreko boluntarioekin bildu nintzen. Hona etorri direnei, erakutsi behar diegu hemengo bizimodua nolakoa den. Askotan, beraien kulturagatik eta tradizioagatik, emakumeak ia ez dira etxetik ateratzen. Badaude programa batzuk, trami-teak egitera laguntzeko, herrian barrena ibilaldiak egiteko... Kaleratzea beharrezkoa da, ezagutu ahal izateko. Gauza asko daude egiteko, eta Hernani oso herri aktiboa da. Interes haundia dauka pertsonen eta bizitza sozialaren gainean. Ez dakit zer moduz moldatuko naitzen, baina gustatuko litzaidake, nire aisialdian, musika bezalako beste afizio batzuekin batera, lagundu ahal izatea eta herri-tarrek kontaktuan jarraitzea. Askok daukat eskertzeko, eta herriari esan nahi nioke, oso zorionekoak garela daukagun bizi baldintzekin, eta zaindu egin behar dugula hori. Eta beste bizitza batean euskera ikasiko dudala (barrez). K

# Talde eta elkarteei zuzendutako Euskaraldia azaroaren bukaeran hasiko da

Euskaraldia ariketa sozialaren bigarren edizioa azaro amaieran hasiko den arren, «martxan gaude jada», zehaztu du Leire Otxotorenak. Helburua hizkuntza-ohiturak aldatzea da, eta 16 urtetik gorako pertsoez osatutako taldeei bideratuta dago.

HERNANI EUSKERA

Hizkuntza ohiturak aldatzea eta euskeraren erabilera haunditzea da apustu sozial honen helburu nagusia, eta gero, egindakoari jarraipena ematea oso garrantzitsua dela adierazi dute. Aurtengo erronka azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo da, eta gogoratu dute ariketa 16 urtetik gorakoentzat dagoela zuzenduta, «helduek egin behar duten zerbait da». Bestalde, Hernanin ez ezik, Astigarragan ere antolatu dira eragileak Euskaraldia aurrera eramanez ahal izateko, eta herriko Udalen babes eta onespenez hasieratik izan dute.

Aurten taldeentzat arigune izeneko figura sortu da. «Ariguneak dira euskeraz lasai hitz egiteko guneak», zehaztu du Otxotorenak. «Taldeei eskatuko diegu beren baitan identifikatzeko ariguneak zeintzuk diren, eta gero martxan jartzeko». Gainera, gehitu du, «ariguneak izateko ezinbestekoa da taldeko guztiek euskaraz ulertzea» eta gero, «norbanako bakoitzak erabakiko du talde bakoitzean zein rol hartuko duen».

## Ikastaro eta hitzaldiak, motorrak berotzeko

Koronabirusak bete-betean harapatu ditu antolatzaileak aurtengo ekimenetarako prestakuntzan, baina gogotsu ekin diote antolakuntza berriari. Izan ere, pandemia dela eta apirilko zenbait saio bertan behera gelditu ziren; bestean artean, Kike Amonarrizen hitzaldia, esaterako. «Aldez aurretik prestatutakoak Internetetik egiteko asmoa genuen, baina hau ere baztertu egin dugu. Saturazioa dago online kontuetan, eta ekimenak modu presentzialean egitearen aldeko apustua egin dugu».

Hala ere, «irailean ikastaro eta hitzaldiren bat egitea aurreikusita dugu». Izan ere, «kultur ekitaldiak egiteko asmoa hila bete hauek zen, baina pandemiagatik ezinezkoa izan da». Zehazki, hitzaldi eta ikastaro bat daude antolatuta, oraingoz. Ba-

tetik, Gemma Anginesen hitzaldia, Telp (*Taller D'espai Lingüístic Personal*) ikastaroak sortu zituenaren. Azaldu du Otxotorenak tailer hauek «euskaldunak ahalduntzea» dutela helburu.

Hain zuzen, hizkuntza-gatazkak gertatzen diren egoeretan edota «eguneroko hizkuntza-gatazken aurrean baliagarriak izan daitezkeen tresnak eskaintzen dizkio hizkuntza gutxituko hiztunari». Otxotorenak adierazi du «gure prestakuntzak bere lanean oinarrituta» daudela, eta horregatik, berezia zein interesgarria izango da bilbotarraren agerraldia.

Bestetik, Joxerra Garzia euskal idazle, kazetari eta EHUko irakasleak «hizkuntza zorrotzeko» ikastaroa eskainiko du. «Hizkuntza baliabide informala lantzeko ikastaroa izango da, lau eguneko». Urrian izango dira lau saioak, eta zehaztu dute, ikastaro honetarako izena eman beharko dela. Gainera, ekimena martxan dagoela jakinarazteko, «San Juanetan ere agerian izaten saiatuko gara», azaldu dute.

## «Jarraipena ematea da garrantzitsua»

### Taldeen izena emateko azken eguna, irailaren 27a

Ekimenean parte hartzeko epea iraila amaieran bukatuko da. Bestalde, oraindik zehaztu gabe dago txaparen banaketa nola egingo den, baina antolatzaileek azaldu dute honen berri ere emango dutela, ahal bezain pronto.

Otxotorenak azaldu du aurtengo erronka hamabost eguneko izango dela, «baina horren ostean ere zenbait taldeei jarraipena egin nahi diegu». Gainera, adierazi du «Epe luzerako ere mikro-planak» egin nahi dituztela, eta hori dela haien erronka. Izan ere, «talde horiek martxan jarri gero, besteak agian ere animatuko dira», azaldu



Leire Otxotorenarekin hitz egin dugu, Dobera Euskara Elkarte kide eta Euskaraldiko arduradunarekin.

dute. «Eragile lanak eginez gero, jarraipena izateko aukera dago, eta hori da garrantzitsua».

Esan bezala, talde eta elkarteei zuzendutako ekimena da, «denak elkarrekin aritzeko erabakia hartu izanak erraztu dezakelako denon artean hizkuntza ohitura horiek aldatzea». Horregatik, aurten fokua taldeetan jarriko da lehenengo, eta gero iritsiko da norbanakoen txanda. Azaldu dute asmoa dela «taldeek bere baitan dinamika egitea, gero norbanakoak ere animatzeko».

Norbanakoen kasuan, urritik aurrera hasiko da hauei zuzendutako kanpaina, eta «prestakuntzak ere orduan izango dira», argitu du Otxotorenak. Hauen kasuan, iraila bukaeran irekiko da izen-emateko epea, «baina oraindik ez dago zehaztuta».

### «Ez da euskeraren alde egitea, euskeraren alde egotea baizik»

Joan den urtean 1800 pertsonatik gora aritu ziren hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketak egiten. Zehazki, 1747 pertsonak eman zuten izena Euskaraldian, eta 1118 izan ziren *Baietz Hernanik!* ekimenean parte hartu zutenak.

Otxotorenaren ustetan, «Hernanin jendeak euskeraren aldeko oso jarrera ona du». Hala ere, dio,

«erderarako ohitura barneratua eta normalizatua» dagoela, eta horregatik jarri dela martxan ariketa soziala. Izan ere, zehaztu du «gehiengoak» dakiela euskeraz: «%60ak ulertu eta hitz egiten daki, eta %20a ulertzeko gai da».

Otxotorenak hizkuntza-gatazkak gertatzen diren egoerak gogorarazi ditu. Hain zuzen, elkarrizketa bat euskaraz hasi eta erderaz hitz eginez amaitzen duguneko situazioa. Izan ere, «erderaz egitea eramaten gaituzten» pertsonak daude, edo arrazoirik gabe, erderaz hitz egitea salto egiten duguneko kasu asko daude egunerokotasunean. Horretarako da, hain justu, Telp tailerra; euskeratik erdararako aldaketa zergatik egiten dugun ulertzeko, hizkun-

tza-gatazka egoera horietan deseroso ez sentitzeko, eta aldatu nahi den hori aldatzeko tresnak eta gakoak zeintzuk diren ezagutzeko.

Erronkaren helburua «hizkuntza ohiturak aldatzea da». Hala ere, argi adierazi du Dobera Euskara Elkarte kideak, «horrek ez du esan nahi aurretik gaizki jokatu genuenik, ezta gutxiago ere». Euskaraldiko arduradunak aitortu du hizkuntza ohiturak aldatzea ez dela erraza, baina «gure nahia da euskeraz dakien horrek, euskaraz egitea» esan du. «Mendekotasun linguistikoa iritsi zaigu guri», eta pixkanaka moldaketak egin behar direla adierazi du: «Euskeraz ulertzen badit, zergatik egingo diot erderaz?». K

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IRRERETA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

## CEPA Hernani HHI Helduen hezkuntza

Matrikula epea ekainaren 22tik 30era arte

Matrikula egiteko bi modu:

☎ 943 33 53 18 ✉ 012076aa@hezkuntza.net

Ordutegia: 10:00 - 14:00

- DBH-ko TITULUA lortu
- Hizkuntzak: Ingelesa
- Zure Ikasketak jarraitu
- Atzerritarrentzako gaztelera



Argiaren bila I eskultura errestauratzeko hiztarmena sinatu dute, Orona Fundazioak eta Chillida Lekuk.

## Chillida Lekuk ateak ireki ditu berriro ere, gaur goizetik

«Udako solstizioa ospatzeko» dantza-ikuskizun ekitaldi berezia izango da musoan, goizean eta arratsaldean, bisitari guztientzat.

**HERNANI CHILLIDA LEKU**

Ilusioz bueltatuko dira lanera museoan, eta irekiera berezia izateko, dantza garaikideko ikusikizuna egingo dute. Hernaniko Udako Kultura Sailak babestuta, Myriam Pérez Cazabón konpainiaren *Iceberg* emanaldia izango da, hain zuzen.

«Distantzia egokia bermatzeko», ikuskizuna 25 minutuko bi erakustalditan egingo da, 12:00etan eta 20:00etan, eta bakoitzak 200 sarrera izango ditu. Egun horretan, 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 22:00etara irekiko da museoa, «bisitarien museoa osorik bisitatu eta Lurra Café-ren erabilera egin dezaten». Diote, azken hori ere «jendearentzat irekita egongo da».

«Berririkitze hau aukera bat da kulturaren erronka haundia gogoratzeko», aitortu dute

museoko arduradunek. «Kultur erakundeek, orain inoiz baino gehiago, erakutsi behar dugu kultura ezinbestekoa dela bizi garen mundua ulertzeko». Gainera, adierazi dute, «ezin dugu ahaztu arte-sorkuntzak, bere forma guztietan, ahalmen konpontzailea eta sendagarria dela, eta krisi-une hauetan inoiz baino beharrezkoagoa dela».

Aipatzekoa da, museoaren kanpoaldean kokatuta dagoen Argiaren bila I eskultura eta lan ikonikoa errestauratzeko Orona Fundazioak eta Chillida Lekuk hiztarmena sinatu dutela.

**Hernaniarrek leku berezia, ikuskizunean**

Biharko dantza emanaldietarako 400 sarrera saldu dira guztira, 200 saio bakoitzerako. Guztietatik, 300 hernaniarrentzat erreserbatu dira, leku berezia emateko. Hain zuzen, 150 goize-

ko saioarako eta beste hainbeste, arratsaldekorako.

Gainera, sarrerak ohi baino prezio merkeagoan egon dira eskuragai, Biteri kultur etxean eta museoko webgunean, atzo arte.

**Ordutegi berria, udako hilabeteetan**

Ekainean, museoaren ordutegi berria larunbat eta igandeetan izango da, 10:00etatik 16:00etara, eta uztailetik aurrera eta uda osoan, ostiraletik astelehenera, 10:00etatik 16:00etara.

Adierazi dute, «bisitari eta langile guztien osasuna eta segurtasuna bermatzeko», autoritateek emandako higienari eta edukiera mugatzeari buruzko protokolo guztiak beteko dituela museoak.

**Atzo, abonatuak bakarrik**

Atzo museoa museoko abonatuentzat bakarrik ireki zen. Esan dute, urteko emanaldiaren titularrek eta bi lagunek «esklsiban» ikusi ahal izan dutela museoa, berriz ere publikoari ireki baino lehen. **K**

## Hileta mezak asteburuan, Hernanin eta Astigarragan

Gaur eta bihar egingo dituzte parrokiak konfinamendu garaian joan zirenen oroimen mezak, senideak gogoan izateko.

**HERNANI-ASTIGARRAGA ELIZA**

Egoerara egokitutako martxarekin jarraitzen dute, bailarako parrokiak. Aste barruan, orain arte bezala segiko dute hileta mezak ospatzen, Hernaniko San Joan Bataiatzailean. Gaur, ordea, konfinamendu garaian hil direnen aldeko hileta mezak ospatuko dira. Eta bihar, eguerdiko mezan, gogoan izango dituzte iazko martxoan hil ziren parrokiako kideak, bere garaian ezin izan zutelako urtemuga ospatu.

**Astigarragan, mezak bihartik** Hernaniko parrokiak ez bezala,

bihar hasiko dira Astigarragako parrokiak, konfinamendu garaian hil direnen oroimen mezak egiten, 10:30etako mezetan.

Hala jakinarazi dute: «saminean lagun ditugula, Astigarragako parroki elkarteak, martxoaren erditik maiatzaren aurreneko astera bitartean hil diren senide maiteak gogoratu, agurtu eta Jesusen Jainkoari, Biziaren Jainkoari gomendatu nahi ditugu». Horregatik egingo dituzte hileta mezak.

Astigarragakoek ere ez zuten aukera izan konfinamenduan joan zirenei agurra egiteko, eta modu horretara, bihartik aurrera agurtuko dituzte. Hain zuzen, ekainaren 21etik uztailearen 5era arteko igandetan, haiek oroitzeko mezak ospatuko dira.

Hildakoen senideekin adostuta osatu dute hileta mezen egutegia, eta horren arabera egingo dituzte. **K**

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



### MANUEL IRIONDO EZKIAGA

(Juani Goenagaren alarguna)

Atzo hil zen, 85 urte zituela

Seme-alabak: Ibon eta Jaione Aizkorbe, eta Olatz; biloba: Joanes; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.



Gorputz beila Hernaniko ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egingo da **GAUR, LARUNBATA**, goizean 10:00etatik 14:00etara, eta arratsaldean 17:00etatik 21:00etara. Aldez aurretik, mila esker.

**Hernanin, 2020ko ekainaren 20an**

OHARRA: Azken agurra bere familian egingo da.



### MANUEL IRIONDO EZKIAGA

Langile nekaezina izan zara eta azken hatsean ere zure eskuekin danon oinak janzteia izan da zure bizipoza. Aita, Aitona eskerrik asko bihotzez.



**Hernanin, 2020ko ekainaren 20an**

**FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.

**943 33 10 20** [www.funerariaorbegozo.com](http://www.funerariaorbegozo.com)

\* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin

\* Beilatokiak

\* Errausketak

\* Lekualdatzeak

\* Eskelak, koroak...



Zentrala Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

# «Krisi honen kudeaketan lehentasun gehiago izan du politikak osasunak baino»



ERAGILEA LURDES BARRAGAN MERCE

## Osakidetzako langile eta feminista izanik, zure ustez zerk izan du lehentasuna larrialdi egoeran?

Krisi honen kudeaketan lehentasun gehiago izan du politikak osasunak baino, eta gaur egun ere hala da. Jendartearen eskubideak mugatzeko edozerk balio du baino Kapitalari ez zaio mugarik jarri. Osasungitzaren ikuspegia duen lidergorik ez dugu izan; politikari liberalak aldiz, soberan.

Era berean, balio gehiago eman zaio industriari zaintzei baino eta nola ez, generoari loturik dago. Esan genezake zaintzen figura "ama" dela eta industriarena "aita"; zaintzari txaloak eta sinbolismoa eskeini zaizkio eta industriari materiala eta lehentasun guztia.

Horren ondorioak oso argiak izan dira. Berehalako erantzun sanitarioa emateko beharra ikusi genuenetik agerian geratu dira osasun sistemak dituen gabeziak: prebentzioan, asistentzian, baliabideetan... Horren ondorio dira horrenbeste salatu dugun babes materialaren falta. Eta ordea, hauteskundeetan bozkak zenbatzeko osasun langileak baino babestuagoak egongo gara. Gauza bera langileen baldintzekin, gaur egun kontratu ebentualuak %35 baino gehiago dira, ez dago eskubiderik. Lehentasuna ez dira bizitzak izan, hori argi dago.

## Konfinamenduan zehar, ze neurri har zitezkeen beharrezko zaintzak bermatzeko?

Ospitaleetako arretan zentratu

da eta gainerako guztia prekarizatu. Lehen Arretarekin (anbulategi eta osasun zentroekin) gertatu den bezala, urteetako joerarekin jarraituz, baliogabetu egin dituzte. Horren ondorioz, ez gara iritsi beharrezkoa zen osasun arreta guztia ematera: koronabirusa ez ziren beste gaixotasunei ez zaie jaramonik egin eta covid-arekin larriki gaxorik egon gabe ezta ere. Beste neurri batzuk ere har zitezkeen, hala nola, gaixoak norbaitekin egon ahal izatea, familiak haien kideetaz despeditu ahal izatea...

Osasungitzaren funtsa ez da gaixoak sendatzea bakarrik, jendea ez gaixotzea ere bada: garraio publikoan jende pilaketarik ez egotea da, etxeetan itxita egoteak dituen kalteei arreta jartzea da, publikoa dena ez murriztea eta abar luze bat.

Eta ez hori bakarrik, Osasun zentruak, Gizarte Zerbitzuak eta gai honekin lan egiten duten kolektiboek koordinatuta lan egin beharko lukete. Zerbitzu hauetan artatzen diren pertsona askok beste zerbitzuen beharra ere izan dezakete eta lotura hori profesionalek egin beharko lukete, modu sistematizatuan.

## Hainbat eta hainbat bizitzetan ondorio larriak eman dira, zeintzuk iruditzen zaizkizu asaldagarriak?

Buf, horren beste izan dira! Komunikabideak gertatutakoa apaintzen saiatu diren arren, ikustear daude oraindik itxialdiak izan dituen ondorio guztiak.

Asko larritzen nau etxeetako zaintza egoera pertsonal bat balitz bezala ikustarazi dela eta

ez arazo kolektibo gisa. Emakumea zaintza lanetara itzularazi dute, generoarengatik eta "ustezko debozio" horrengatik. Eta hori gutxi balitz, osasun krisi honetan egindako lana ez zaio onartu eta telelana eta zaintzen arteko kontziliazioa ezinezkoa den garai honetan, badirudi emakumearen errua dela ezin iritsi ahal izatea. Indarkeria matxistak ez dira gelditu, eraldatu egin dira. Sostengu ziren guneak desagertu ziren (eskolak, lagunak, elkarteak, instituzioak, ambulategiak...) eta larrialdietarako sortu diren zerbitzuak oso zailak izan dira aurrera eramaten.

Eta beste alde batetik, ikusi beharko dugu nola antzeman zein izan den kolektibo zaurgarriaren egon diren eraginak eta nola laburtu horrenbeste zabaldu den arrakala ekonomikoa.

## Zertan asmatu dugu Hernanin?

Oraindik behartuak ez ginean taberna eta sagardotegiak ixten asmatu genuen. Aipamen berezia egin behar zaie Zaintza Sarea, Hernani Solidarioa eta Amher-i. Elkarrekin lana asko konplikatuta bada ere aurrera jarraitu dute. Herri solidarioa gara islatzen du, bitzita duinak aldarrikatzen dituen eta gaur egun, inoiz baino gehiago, frogatzen duena ezin dela aurrera atera zaintzarik gabe.

Eta nola ez, Adinekoen Egoitzan egin den kudeaketak denon miresmena merezi du. Oso lan txukuna eta zaindua izan da eta ez dute kutsatutako egoiliar bat bera ere izan.

## Zer dago egiteke oraindik?

Iragana eta etorkizuna berplanteatzeko eta aztertzei aukera ekarri digu krisi honek. Nere ustez oso garrantzitsua da sarean lan egitea eta egoera honetan erabili ditugun baliabideetatik ikasi beharko genuke. Adibidez, Udal zerbitzuek eta komunitateko bolondresak, zaurgarriaren jarri duten arreta eta hauen egoeraren jarraipena egitea izan dira erantzunik egokienak eta hau politika publikoetan txertatu beharko litzateke.

Eta noski, onartezina litzateke berriro ere gaixotasunak gorakada egingo balu plan integral bat edukiko ez bagenu. Hala ere, plan horrek ikuspegi unibertsala eta feminista izan beharko lukeela uste dut.



ZAURIONDOA

## TESTIGANTZAK

Lekukotza: Leire, 32 urte

## EROTIKAN PLAX

## Orgasmorako ez-gai

Sexukidearen estimuluen eraginarekin orgasmoak bizitzea, askorentzat desiragarria da, baina ez da uste bezain erraza edota arrunta. Topaketa askotan, sexukideak bere gaitasun erotikoak, errendimendu sexuala, autoestima edota -kasua denean- gizontasuna, neurtzeko orgasmoaren bizipena azterketa batean bilakatzen badu, zein lekutan uzten gaitu horrek?

"Noizbehinkako harreman batean orgasmorik sentitu ez nuelako, harremankide batek baztertu ninduen. Horren ondoren, bolada txar bat pasatzen ari nintzen eta Plax-era joan nintzen.

Normalki ez nituen **orgasmoak** izaten, **soilik, bakarka eta masturbazioaren bitartez**. Ordura arte, ez zen niretzako tragedia bat izan.

Plax-en, egoera modu objektiboan azaldu zidan sexologoak, ikuspegi orokor batetik ulertarazi zidan, jokabideetan eta sexualitatearekiko, eta zehazki, erotikarekiko, nire jarreraren azpimarra jarritz.

"Neure burua hobeto ezagutzeko pistak eta baliabideak eskaini zizkidan, neure burua askatu, **auto-konfidantza indartzeko** eta lotsa galtzeko".

"Ez nuen inoiz mutil horrekin orgasmorik izatea lortu, lehen esan dudana bezala, harreman esporadikoa, motza izan zen eta horrela geratu zen. Hala ere, **laguntza eskatzeko abiarazlea** izan zen. Egia esateko ez zitzaidan ezer txarrik gertatzen. Etiketatuta ninduten edo nik neure burua etiketatuta nuen "orgasmorako ez-gai" bezala, urte askoan, betirako kentzea erabaki nuen arte".

"Gaur egun, ederki nago nire sexualitateaz guztiz gozatzen dudana harreman batean".

**Deseroso sentiarazten gaituen etiketaren bat baldin badugu, ezgaitu sentiarazten gaituen zamaren bat, ez dugu horrekin betirako bizi beharrik. Arintzeko moduak hor daude, guk erabakia hartzeko zain.**

PLAX! Hernaniko sexu eta bikote aholkularitza doakoa eta konfidentziala da. Osasun zerbitzuen osagarria. Covid19a dela eta, zerbitzua telematikoki ematen ari gara momentu honetan. Hitzordua egiteko: **656544606** (deitu edo bidali whatsapp bat), [www.hernani.eus/sexu](http://www.hernani.eus/sexu) eta [facebook.com/plaxhernani](https://www.facebook.com/plaxhernani).



# Udan ere, sagardo freskoa dastatzeko aukera emango dute, Hernani eta Astigarragako hainbat sagardotegik

Alarma egoera medio, txotx garaia bertan behera gelditu zen. Hala ere, Urumea bailarako sagardotegi askok, udan ere atek irekiko dituztela jakinarazi dute, San Joan jaiak aprobetxatuz.

## URUMEA SAGARDOTEGIAK

Covid-19aren eraginez, txotx garaia bertan behera gelditu zen, aglomerazioak saihesteko eta denon segurtasuna bermatzeko asmoarekin. Hala ere, konfinamendu garaia pasata, askok ez dute aukera izan Urumea bailarako sagardoaz gozatzeko. Hori dela eta, uda partean, sagardotegiek euren atek irekiko dituzte, sagardo goxo eta menu freskoaz gozatzeko. Sagardotegi askorentzat, berria da udako irekiera, izan ere, «txotx garaian irekitzen dute soilik», eta hauek

dira, berrikuntza honetarako apustua egin dutenak: Olaizola, Itxas-buru eta Altzueta.

## Aitzindariak, udan

Beste sagardotegi batzuentzat, ez da hain berria udan irekitzea, urte osoan irekita daudenak ere badaude eta. Hala nola, Petritegi eta Ipintza. Iparragirrek, aldiz, 2015etatik irekitzen ditu atek uda partean, «giro ona eta eguraldi ederra, aitzaki aproposa sagardotegia irekita edukitzeko». **K**

## «Txotxa txandaka egingo dugu, segurtasunagatik»

Lehenengoz ireki ditu atek Olaizola Sagardotegiak udari begira, eta abuztu amaierara arte egongo da irekita.



Ostegunetik igandera arte egongo da irekita Olaizola Sagardotegia.

## HERNANI OLAIZOLA

Lehenengo urtea da Olaizola Sagardotegiak, udan atek irekiko dituen. Aurreko astean ireki zuten, eta sagardotegi-koek jakinarazi dute «oso gustora» hasi direla, «poliki eta jende kopurua jaitsita, baina gustora».

Sagardotegia, ostegunetik igandera arte egongo da irekita, ordutegi honetan; osteguna 20:30etatik aurrera, ostiral eta larunbatetan eguerdiko 13:30etatik aurrera eta gaueko 20:30etatik aurrera; eta igandeetan bazkariak egiteko

egongo da irekita, 13:30etan hasita.

Koronabirusaren egoerak, denon egunerokotasuna aldatu du, eta sagardotegia ere, izan ere, 70 bat lagun sartzeko kapazitatea du orain Olaizolak, «segurtasunagatik», eta langileak neurri prebentiboak erabiltzen dituzte lanerako, maskarilak, gelak...

Txotxa, mahaika egiten dute Olaizolan, masakifazioak sahisteko «txandaka egiten dugu». Hala ere, gehiena botilan entregatzen dutela aipatu dute, menu freskoarekin batera.

## «Sagardotegira etortzeko aitzakia ederra: San Joanak eta uda»

Ekainaren 4tik darama Itxas-buruk irekita, eta aurten lehenengo aldia da, San Joanetan eta uda partean sagardotegia irekiko dutena.

## HERNANI ITXAS-BURU

Duela 16 egun ireki zuten Itxas-buru Sagardotegia, eta aurten lehenengo aldia da udari begira irekitzen dutena. Jakinarazi dute, jendea asteburuetan animatu dela oraingo, «askok ezin izan baitute sagardotegirik egin alarma egoerak debekatuta».

Gainera, ate joka ditugu San Joan jaiak, eta ohiko moduan ezin ospatu arren, Itxas-buruk, sagardotegira bertaratzeko deia egiten du, herriko jaiak ospatzeko aitzakiarekin.

Ordutegiari dagokinez,

ostegun gauean irekitzen da, eta igande eguerdian arte mantenduko dute irekita, beraz, ostiral eta larunbatetan, «bazkari zein afariak egiteko aukera» eskaintzen du Itxas-buruk.

Beharrezko segurtasun neurriekin ari dira lanean sagardotegian, segurtasuna bermatze aldera, hori horrela txotxa, «txandaka ari gara, mahaika».

Ohiko menuaz gain, eskaintzen da; tomate entsalada, esparragoa... Betiko menuaren prezioak jarraitzen du «gehirrik ez bada eskatzen».



«Txotxa txandaka egiten ari gara».

## «San Joan jaiak ospatzeko, ordutegi zabalagoa eskainiko dugu»

Atzo ireki zen Altzueta Sagardotegia. Udan irekita egongo da «sagardo freskoaz gozatzeko eta menu berriak dastatzeko» aukera eskainiz.

## HERNANI ALTZUETA

Atzo izan zen Altzueta Sagardotegiaren irekiera, eta aurreikuspen positiboak dituztela jakinarazi dute, «erreserba batzuk badauzkagu, egia esan, ondo joango dela ematen du». Lehenengoz irekiko dute sagardotegia uda aldera, eta gainera San Joanak datozela aprobetxatuz, «ordutegi zabalago bat izango dugu, herri festak direlako».

Asteazkenetik, irekita egongo da sagardotegia, «asteazken eta ostegun gauetan afariak emateko asmoa daukagu», eta ostiral eta larunbat eguerdi eta gauetan egongo da irekita. Igandeetan, aldiz, itxita mantenduko da. Udako irekiera honen irailaren 12ra arte iraungo duela azaldu dute.

Altzuetak ere, neurri prebentiboak hartu ditu lanerako, egoerak hala eskatuta. Lan-



«San Joanetan ordutegi zabalagoa eskainiko dugu».

gileek maskarilak erabiltzen dituzte, gel desinfektanteak ere badaude, mahaien arteko distantzia «minimo 2 metrokoa da».

Sagardotegiko betiko menua eskaintzeaz gain, menu berri bat jarri dute aukeran: tomate entsalada bentreskarekin, urdaiazpiko tortila, txipiroi begi-haundia parrilan,

hegaluzea parrilan, legatza saltsan, eta postrea sagar tarta edo izkozki artisaua.

Altzuetakoek, gaineratu dute, jendeak aukera edukiko duela nahi duen menua osatzeko eta nahi eran moldatzeko, «nahi dugu jendeak gustura jatea, norberak bere menua diseinatu dezake, dauzkagun produktuekin badira».



## Urte honetan, bosgarren aldiz irekiko ditu ateak Iparragirre Sagardotegiak udari begira

2015garren urtetik darama Iparragirrek, udan ere sagardoaz, sagardotegiko menuaz, eta bertako produktuekin egindako kartaz gozatzeko aukera ematen. Barruko jantokiaz gain, terraza ere badu, eta udazken arte izango ditu ateak irekita.

### HERNANI IPARRAGIRRE

Bost urte daramatza Iparragirrek udan ere sagardoa dastatzeko aukera ematen, «guretzat ez da berria hau, izan ere, tenporadaz kanpo irekitzen dugu urtero».

Gainera, jakinarazi dute, bertako produktuez egindako menuak eskaintzen dituztela, «plateretara doan haragi guztia Eusko Labela da, gainera, Hernaniko produktuak erabiltzen ditugu, zertifikatuak. Gazta Idiazabal erabiltzen

dugu, sagardo ekologikoa ere badaukagu, botiletan ere hala eskaintzen dugu, eta mustioa ere ekologikoa da».

Ordutegiari dagokionez, ostiral eguerditik, igande eguerdira arte da, eta ostegun gauetan afaltzeko, enkarguz egin behar da.

Hilabete honetan, igandetan, goizeko 11:00etan, hamaiketakoak eskaintzen dira, terrazan.

Guztira, 100 bat laguneko kapazitatea du orain sagardotegiak, egungo egoera dela

eta. Prebentzio neurri gisa, ez da txotxik egiten, «aurten botilan bakarrik eskainiko dugu sagardoa, bezeroen segurtasuna bermatzeko. Hala ere, esan beharra dut aukera anitza daukagula botiletan ere». Horrez gain, langileak maskarilak eramaten dituzte, eta gel desinfektanteak jarri dituzte sagardotegiko sarrera zein irteeran. «Komunak aldiro desinfektatzen ditugu, eta mahaien arteko distantzia 2 metrokoa mantenduko dugu».

Menu begetariano, begano



Igandero, hamaiketakoak eskainiko ditu Iparragirrek, bertako terrazan.

zein haurrentzako menuak ere egiten ditu Iparragirrek, eta «zeliakoentzat ere egokituta dago sagardotegiko menua». Orain arte, udako irekieretan, bisita gidatuak egiten zituzten, eta aurten ez dute horrelakorik antolatu, «gehienbat herritar eta bezeroen segurtasuna ga-

rrantzitsua iruditzen zaigulako».

Sagardotegiko menua, 34-35 eurokoa da, eta gainontzeko menuak 13 eurotik 22ra bitartekoak dira. Iparragirrek gehitu du kafeteria zerbitzua ere badutela «kafeak, konbinatuak... egiten ditugu».

## «Udan egiten ditugun menuez gain, plater berri bat eskainiko dugu»

Ipintza Sagardotegiak urte osoan zehar ditu ateak irekita, sagardotegiko ohiko menuaz gain, mota ezberdinetako menuak eskaintzen ditu.

### ASTIGARRAGA IPINTZA

Urte osoan zehar dago irekita Astigarragako Ipintza Sagardotegia, beraz uda honetako irekiera «ez da berria» haientzat.

Datorren asteartean, irekiko ditu ateak Ipintzak,

eta udako menuez gozatzeko aukera egongo da. Ordutegiari dagokionez, asteazkenetik larunbatera bitartean afariak emango dira, eta bazkariak berriz, larunbat eta igandeetan emango dira.

Ipintzak urtero eskaintzen ditu udako menuak, baina aur-

ten plater berri bat gehitu dute kartara, *Nuggetsak*.

Txotxa egingo da, baina «txandaka, segurtasun neurriak hartuko ditugulako». Gainera, langileak maskarilekin egingo dute lan, gel desinfektanteak egongo dira sarreran, eta sartzeko garaian «alfon-



Urte osoan zehar egongo da irekita Ipintza Sagardotegia, menu ezberdinekin.

bra berezi bat jarri dugu».

Menuen prezioak antzerakoak izango dira, «udako

menuak apur bat igoko dira», baina orokorrean nahiko antzekoak izango dira.

## Udako menu berria eskaintzen du Petritegi Sagardotegiak: «freskoa eta goxoa»

Maiatzaren 30ean ireki zituen lehenengoz ateak Petritegi Sagardotegiak alarma egoera ezarriz geroztik. Hala ere, uda partean irekitzeko «ohituta» daudela jakinarazi dute sagardotegikoek, eta abendura arte mantenduko dute irekita.

### ASTIGARRAGA PETRITEGI

Maiatzaren 30ean ireki zen Petritegi Sagardotegia berriro, eta uda partean irekitzeari dagokionez, «esperientzia» daukagutela esan daiteke, «guretzat ez delako berria udan irekitzea». Gainera, denbora luze batez iraungo dute irekita, «abendura arte edukiko ditu ateak irekita Petritegik, abendu osoa egingo dugu, jai egunak kenduta».

Astean zehar ere irekita egongo da, izan ere, asteartetik igandera bitarte eskainiko dituzte menuak eta sagardoa dastatzeko aukera, «hau ekainean izango da, uztailean aldaketak etorriko dira». Beraz, bazkarietarako eguerdiko 13:00etatik 15:00etara izango da ordutegia, eta afarietarako 20:00etatik 22:00etara.

Petritegik espazioz «kapazitate handia daukagu, baina

egoera ikusita, 180 bat lagun sartu daitezke». Sarbideak erraztu dituzte, «sagardotegira sartzeko ate bakarra jarri dugu, eta ateratzeko beste bat». Gel desinfektanteak ere nonahi topa daitezke, eta prebentzio neurri zorrotzak hartu dituzte lanerako. Txotxa eremugatu egin dute, «txandaka joango dira, eta behin bakarrik izango dute aukera».

Udari begira, menu berri bat



Petritegi abendura arte egongo da irekita.

sortu dute: entsalada, tortila, aukeran txuleta edo legatza parrilan eta postrea. «Zerbait freskoa sartu nahi genuen uda-

rari begira». Aipatutako udako menu honek, 27 euro balio ditu, eta gainontzean, «32 eta 40 euroko menuak daude aukeran».

# «Badira aldatu ez diren zenbait gauza, baina hau ez da lehen genuen autoeskola»

Autoeskolek azken azterketa martxoaren 12an egin zuten, konfinamendua hasi baino bi egun lehenago. Hala ere, pixkanaka martxan hasi dira eta ohikoa den ez bezala, aurten abuztuan irekita egongo dira, azterketak egiteko aukera dagoelako.

**HERNANI AUTOESKOLAK**

Lurdes Lopez eta Rafa Zulaikarekin hitz egin dugu, Otamendi eta Hernani autoeskoletako aduradunekin, koronabirusak haien sektorean nola eragin duen jakiteko. Diote, ia bi hilabete oso geldirik egotea «gogorra» izan dela, baina gogotsu bueltatu direla lanera.

Martxoaren 12an azterketa egin eta Donostitik Hernanira bueltan zetoztenean, hauxe esan zien Hernaniko Otamendi autoeskolako arduradunak ikasleei: «uste dut zuena azken azterketa izango dela». Eta ez zebilen oker, bi egun geroago Gipuzkoako Trafiko Zuzendaritza Nagusiko arduradunak jakinarazi zuen «azterketak bertan behera gelditzen zirela», esan du Lopezek.

«Oso inplikazio ona dute autoeskolako ikasle guztiek», dio Lopezek, irrifarre batekin. Hala ere, «besarkadak ez ematea da gehien kosta zaidana», aitortu du. Izan ere, koronabirusa dela eta ezin du mantendu gertuko kontaktua ikasleekin, «laguntza behar dutenean». Eta hori da, dio, tristura gehien ematen diona.

## «Autoeskola desinfektatzen ematen dugu eguna»

Koronabirusak autoeskolako atak istera behartu zituenetik, arduradunek hamaika buruhauste izan zituzten prebentziorako neurriak zehazten. Hala ere, lortu dute berriro ere martxan jartzea: «Badira aldatu ez diren zenbait gauza, baina gehiengo neurriak aldatu dira hemen», adierazi du. Adibidez, lehen ere papereko testak egiten zituzten, eta «beti izaten genituen paperak zorroetan sartuta».



Maskarilla jarrita gidatu behar dute orain, autoeskoletako ikasleek.

Autoeskolan bertan «boli-grafoak, arkatzak eta kolorezko errotulagailuak ere izaten ziren», baina orain, dio «ezinezkoa da hori eta ikasleek etxetik ekartzen dutze beharrezko material guztia».

Gainera, Lopezek azaldu du koronabirusaren aurretik «nahi haina ikasle» gerturatzen zirela autoeskolara. Azaldu du, «32 izatera heldu ginen, eta orain 9 bakarrik egon daitezke». Izan ere, orain aforoa neurtu behar izan dute, eta prebentzio neurriek galarazi egiten dute gela berean jende pilaketak egotea. «Jende pilaketak saihestu ditugu hasieratik», azaldu dute.

Autoeskolako arduradunak azaldu dute bezeroen aldetik ez dutela beldur haundirik nabaritu. «Hasieratik hartu genituen prebentzio neurriak», eta babesa adierazi nahi izan zieten ikasleei. Gehitu dute, «azterketa teorikoa prestatzera etorri nahi duen ikasleak alde aurretik abisatu behar gaitu». Orain ikasle bakoitzak ordutegi zehatz bat du, eta aldatu nahi izanez gero, abisua eman beharko duela azaldu dute.

Zulaikak zehaztu du «harreran pertsona bakar bat egon daiteke zai» eta eskola teorikoa prestatzeko gelan «bi metroko

distantzia mantentzea beharrezkoa da».

Larrialdi ekonomikoa dela eta, diote, «zorionez» jendeak ez duela atzera egin azterketarako prestakuntzarako matrikulazioan. Diote, «agian, koronabirusak utzi dituen arrasto ekonomikoko larriengatik, egongo da autoeskola ordaintzeko gai ez dena», baina momentuz ez da aldaketa haundirik nabaritu, Otamendi eta Hernani autoeskoletan, behintzat.

## Ez dute hutsetik hasi behar izan, praktikoa prestatzen ari ziren ikasleak

Badira eskola praktikoa konfinamenduaren aurretik hartzen hasi zirenak. Zulaikak dio «batzuek beldurra» izan dutela. «Hasieran trebezia falta nabari dute, baina egia esan gidatzea ez zaie ahazten», aitortu du. Izan ere, hori da ikasle askok konfinamenduan izan duten kezka nagusia. Bi hilabete oso eman dituzte gidatu gabe, eta arraroa egin zaie bolantea berriro ere hartzea. Hala ere, «seguituan ohitu dira», dio Zulaikak.

«Bada konfinamenduaren aurretik 4-5 klase bakarrik eman zituen ikasle bat», kontatu du Lopezek, Otamendi autoeskolako arduradunak. Eta orain, gidatze-

ko eskolak berriro ere hartzera bueltatu denean, «larrituta zegoen», azaldu du. Hala ere, «pixkanaka» dinamika hartu du eta martxan da, gainontzeko ikasle guztien moduan.

## «Abuztuan azterketa teorikoak eta praktikoak egongo direla esan zuen trafikok»

Azterketa teorikoaren prestakuntzari dagokionean, Zulaikak azaldu du konfinamenduan «klase online-ak» egin zituztela. Horrela, «ikasleekin kontaktua mantentzea lortu genuen», azaldu du.

Hala ere, bada azterketa berehala gaudituz nahi duen ikasleren bat. Azaldu dute, «ulergarria» dela autoeskolako bezeroen egoera, «baina batzuetan matrikula egin eta berehala izan nahi dute kotxe edo motorreko karneta», esan du Lopezek, eta «pazientzia» izan behar dute.

Adierazi dute haiek ere «kaltetuak» izan direla, eta ez direla haiek izan «egoera hau sortu

dugunak». Gainera, gehitu dute: «arduradunek ez dizkigute gauzak erraztu».

## 11 azterketagiletik, 5 izatera pasa dira Gipuzkoan

Egoera gehienbat Gipuzkoan dago gaizki, azterketa kopuruari dagokionean. «Araba eta Bizkaian egoera hobeto dago eta azterketa praktikoa gehiago egiteko aukera dute», azaldu dute bi arduradunek.

## «Eguna bost multzotan banatu dugu, ikasleek nahi duten ordutegia aukeratzeko eta pilaketak saihesteko»

Lehen azterketa teorikoa astero egiten zituzten, baina orain hori ez da horrela. «Azken azterketa ekainaren 9an egin zen, eta hurrengo, berez, 22 eta 26 bitarte izango da», zehaztu dute. Eta norbaitek gaintzen ez badu, «ez dakigu hurrengo azterketa noiz izango den», esan du Lopezek.

Gainera, konplikazio gehien

sortzen zituen azterketa mota praktikoa zen, konfinamendu aurretik ere. Adierazi dute pandemiaren aurretik 9 azterketagile zeudela Gipuzkoan, eta batzuetan beste 2 etortzen zirela, Bizkaiatik.

## «Ulergarria da autoeskolako ikasleen hasierako urduritasuna»

Hala ere, ikasleen kexa nagusietako bat hori zen, azterketagile falta zegoela eta azterketa egiteko aukera gutxi zegoela, lurraldean.

Baina koronabirusaren beste arrastoetako bat, autoeskolatan, azterketa praktikoa egiteko itxaron zerrenda luzatzea izan da. Nahiz eta azterketegileen koordinatzailearen esanetan «egunean 10 ikaslek» egiten duten azterketa, Lopezek zalan-tza azaldu du honen inguruan. Izan ere, «lehen 12 azterketa egiten ziren» eta orain, motorrak eta autoak «goitik behera desinfektatu behar dira» eta beraz, denbora gehiago behar da azterketak egiteko. Gainera, 11 azterketagile izatetik 5 izatera pasa dira Gipuzkoan eta horrela, egoera zaildu da.

Bestalde, «ERTEan egon diren azterketagileak lanera bueltatu dira eta oporrak hartu behar dituzte», azaldu du Lopezek. Horregatik, «ez dakigu nola egongo den egoera», esan du.

Hala ere, abuztuko hilabete osoa egongo dira irekita autoes-

kolak, azterketa praktikoa eta teorikoa egiteko aukera egongo delako. Otamendi eta Hernani autoeskolaren kasuan, udako hilabete horretan ez zuten lan ordutegi bera izaten, baina irekita egoten zen. «Aurten disponibilitate osoa izango dugu», azaldu dute.

Adierazi dute aurten ez dela igo azterketen tasa, «baina ez dakigu zer gertatuko den».

### «Egoera surrealista izan zen martxoak 12koa»

Birusak konfinamenduaren aurretik jo zituen ateak, autoeskolatan. Izan ere, martxoaren 12an azterketa teorikoa egitera joan zirenean, azterketagileak prebentzio neurri ugari jarri zituzten.

«Egun hartan denak maskarillarekin zeuden», azaldu du Lopezek. Dokumentazioa urrutitik erakusteko eskatu zieten ikasleei, eta mezua argia izan zen: «gelatik kanporatua izango da ezutla egiten duenak». Egoera arraroa zein surrealista izan zela azaldu dute, bertan egon zirenek. «Beldurrez egon ginen, horiek ez ziren baldintza egokiak, azterketa egiteko». Ordu-tik, esan bezala, autoeskolatoko egoera aldatu da eta orain prebentzio neurri ugari jarri dituzte, ikasleen era irakasleen osasuna babesteko.

Azterketa praktikolari dagokionean, «orain proba egiteko banan-banan doaz ikasleak eta kotxean azterketa egilea, irakaslea eta ikaslea daude eserita». Lehen, azaldu dute, ez zen horrela. Kotxe barruan bi ikasle joaten ziren, batek azterketa bukatzean, segidan besteak egiteko. K



Maskarilla, gel desinfektantea eta plastikoan bildutako ordenagailuak dira errealitate berria, autoeskolatan.



Prebentzio neurri gisa, beharrezkoa da ikasleen artean 2 metroko distantzia mantentzea.

## «Prebentzio neurri ugari hartu ditugu eta une oro gabiltza guneak desinfektatzen», azaldu dute autoeskolako arduradunek

Banaka sartzen dira ikasleak autoeskolara, arduradunek dena desinfektatzen duten bitartean. Izan ere, Gipuzkoako azterketa egileen koordinatzaileak, Francisco Maquedak, bete beharreko zenbait arau zehaztu ditu.

Batetik, klase bakoitzaren aurretik eta ondoren, ibilgailuak garbitu eta desinfektatu behar dira. Horretarako, garbiketaprodotu «ez-urratzaileak eta desinfektatzaileak» erabili behar dituzte. Gainera, ibilgailua «ondo aireztatu» behar dute. Lopezek dio, «denbora tarte handia itxaron behar da ikasle batek autoa hartu eta beste batek hartzen duen arte».

Bestalde, ikasle bakoitzak autoa erabili eta gero, beste hainbat gune garbitu behar dira: bolantea, kanbio-palanka, eskuko balazta, ateetako tiragailuak (kanpokoak eta barrukoak), klimatizazio-sistemen

botoiak, beso-euskarriak, segurtasun-gerrikoak, beste askoren artean.

Maquedak argi utzi du ezarritako arau orokorrak bete behar direla, «Trafikoko Prohibitza-Buruzagitzetako funtzionarioen osasuna zaintzeko kontuan hartu beharreko neurriak direlako, eta baita ikasleena eta irakasleena ere».

### Azterketa teorikoa eta praktikorako, guanteak eta maskarilla behar dira

Asko dira kontuan hartu beharreko baldintzak, autoeskolatan. Maskarilla eta guantea, ezinbestekoa da, estaterako.

Hala ere, Lopezek adierazi du «beharbada» azken hori ez dela beharrezkoa izango «askotan puskatu egiten direlako».

Esan bezala, azterketa egileen koordinatzaileak zehaztutako irizpideak asko dira. Besteen artean, azterketaileek ez dute ikasleen espedienterik jasoko (berdin du gauditu duten edo ez); espediente guztiak autoeskolaren esku geratuko dira, eta hauek izango dira, geroago buruzagitzan aurkeztuko dituztenak. Lopezek dio, prozesua «asko luzatzen» dela eta ikasleei urduritasuna sortzen diela guzti horrek.

Bestalde, argiak izan dira

ikaslea identifikatzeko metodoarekin: «argi eta garbi erakutsiko zaio azterketaileari identifikazio-dokumentazioa, eta beharrezkoa bada bakarrik ukituko da». Neurri honen inguruan Lopezek martxoaren 12ko azterketa gogorarazi du: «beldur nintzen ea ikasleren bat kanporatuko ote zuten».

### Aipamen berezia, motorreko azterketei

Azterketak prestatzen dituzten arduradunen koordinatzaileak arau zehatz batzuk aurkeztu ditu motorreko azterketa egingo dutenentzat.


Ikaslearen eta azterketa-

ko gainbegiratzaile zein irakaslearen arteko elkarrizketa sustatzeko teknologia moldatu beharko dute autoeskolak, hain zuzen, beharrezkoa izango da «bi norabideko esku libreko interkomunikatzaile eraginkorra».

Gainera, ez da onartuko «Azterketa gainbegiratzen dutenek manipulatzera behartuta dauden materiala erabiltzea, edo ahotik hurbil dauden aurikularrak edo mikrofonoak jarri behar izatea, guztiz higienizatzen direla ziurtatzen ez bada».

Azkenik, azterketa egiten duten ikasle guztiek etxetik eraman beharko dituzte boligrafoak.

# Letra zopa Bilatu «a»



# Ariketa matematikoa

<input type="checkbox"/>	-	<input type="checkbox"/>	x	<input type="checkbox"/>	= 6
-		/		-	
<input type="checkbox"/>	-	<input type="checkbox"/>	+	3	= 2
+		+		+	
<input type="checkbox"/>	/	<input type="checkbox"/>	+	<input type="checkbox"/>	= 7
=		=		=	
9		6		5	

# Mezu sekretua

-----, -----  
 -----  
 ERGUZR SNAE NNEU RTEIAGAN, TAE IN  
 IBANO HEGOLNAE NZE RAINATA

# Ezberdintasunak



SOLUZIOA  
 Gezurra esan nuen Getarian, eta ni baino lehenago zen atarian

# Sudokua

				9			
8				3	6	9	4 7
7		4					
						7	9 4
5	8	2				6	1
				6	1		5
	5	6			9		2
	2			1	3	8	
				6		5	1

**EGURALDIA GAUR** Udaberria giro eguzkitsuarekin amaituko da. Zerua laino gubirekin egongo da, hala ere, ipar partean behe-hodeien tarte batzuk sor daitezke.  
 Min.12° / Max.23°

**BIHAR** Igandea udako lehen eguna izango da eta giro oso atsegina espero dugu. Zerua, oro har, laino gubirekin egongo da. Temperatura gubxi igoko da.  
 Min.13° / Max.23°

(euskalmet)

**TELEFONO ZENBAKIAK**


**TAXIAK** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAIINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

**FARMAZIAK**

**Egunez: Tena** Nagusia, 16 (Astigarraga) **943 543718** **Gauzez: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**  
**Goizueta:** Nagusia 64 948 514353


**IRAGARKI MERKEAK**

**Magisteritza ikasten duen 20 urteko neska euskalduna udaran haurrak zaintzeko prest. Deitu: 689 470 760**  
**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33**  
 (Agustindarren plaza, 4)



# Zortzikoa

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Zortzi dira guztira.



# Itzala

Zein da trogloditaren itzal zuzena?

EGILEA: Garbine Ubeda (Aurri)  
TOKIKOMeko beste hedabideekin elkarlanean argitaratutako atala.

SOLUZIOAK: Sartu [www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus) web atarian eta denbora-pasa hauen soluzioekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

Orak irakurtzeko aplikazio batekin itakurri





Endika Barrenetxea, Oihane Mateos, Xabier Gonzalez eta Kike Elizalde, txapelketaren aurkezpenean, ostegunean.

## «Dauzkagun minak txikiak dira, jokatzeko ilusioa haundia delako»

Galarretaren 50garren urteurreneko txapelketa hasiko da gaur, lau bikoterekin, eta harmailtan %60ko aforoa hartuta. 16:00etan izango da.

### URUMEA ERREMONTEA

Ospakizun giroan egingo dute kantzara buelta gaur, Galarretan, erremontistek. Ez bakarrik lehian arituko direlako martxotik aurrenekoz; baita ere urteurren borobila daukatelako ospatzeko. Eta horretara bideratu dute, aurreneko torneoa: Galarretaren 50garren urteurreneko txapelketa hasiko da gaur bertan, arratsaldeko 16:00etan.

«Elkartu zaigu urteurrenaren poza, etenaldiaren tristurarekin. Baina txapelketak ilusioa egiten du, frontoia berriro martxan ikusteak», nabarmendu zuen Kike Elizalde intendenteak, osteguneko aurkezpenean.

### Barrenetxea eta Zubiri, partehartzaileen artean

Binakako txapelketa izango da, eta lau bikote ariko dira lehian. Horien artean daude, Endika Barrenetxea hernaniarra, Goiko-

etxea Vrekin; eta Aritz Zubiri goizuetarra, Urrizarekin. Gainerako bi bikoteak, osatuko dituzte Ansa IIk eta Larrañagak, eta Juaneneak eta Endiak.

35 tantora izango dira partiduak, «abiadura eta ikusgarritasuna haunditzeko»; eta ligaxkan ekingo diote, bikote guztiek guztien kontra jokatu. Partida irabazten duenak, lau puntu lortuko ditu; eta galtzaileak egindako tantoen arabera: 32-34 eginez gero, bi puntu; 29-31 eginda, puntu bakarra; eta 19 tanto edo gutxiago eginda, puntu bat kenduko zaio.

Ligaxkako bikote onena, finalera sailkatuko da zuzenean, eta bigarrenak eta hirugarrenak jokatu dute semifinala, beste txartela lortzeko.

**%60ko aforoa, maskarilarekin** Erremontistek ez ezik, zaleek ere izango dute aukera, frontoira joateko. Izan ere, %60ko aforoa

hartuko du Galarretak, gehienez 300 lagun. Maskarilarekin joan beharko dute denek, eta eskuak garbitu. Gainera, ezingo da zutik egon partiduan zehar; eserita beti. Xabier Gonzalez gerenteak jakinarazi zuen, gainera, jaialdien hurrengo egunean desinfektatuko dutela dena.

Eta frontoian bertan bakarrik ez, telebistan ere jarraitu ahal izango da txapelketa. Izan ere, 16:00etan hasita, jaialdiko aurreneko bi partiduak zuzenean emango ditu ETBiek. Gaurko biak, honakoak: Urriza-Zubiri eta Juanenea-Endika; eta Goikoetxea V-Barrenetxea IV eta Ansa II-Larrañaga. Ekainaren 27an eta uztailearen 4an izango dira ligaxkako beste partiduak; uztailearen 11n semifinala; eta 18an final haundia.

Endika Barrenetxeak adierazi zuen, «sasoi onean» daudela, txapelketari ekiteko: «aurreneko asteetan izan genituen tendoietan minak eta hanketan molestiak; baina orain indartsu gaude. Dauzkagun minak txikiak dira, jokatzeko ilusioa haundia delako». **K**

## Boleibolean aritzeko, izenematea zabalik

Datorren denboraldian Hernaniko taldean aritzeko izenematea zabaldu dute, eta egin daiteke telefonoz edo WhatsAppez.

### HERNANI BOLEIBOLA

Denboraldia «inork espero ez genuen moduan» bukatu ondoren, datorren denboraldira begira jarri da Hernani Kirol Elkarteko boleibol atala, dagoeneko. Hori horrela, dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea, taldearekin aritzeko. Horretarako, telefonoz zerbakia eman dute, deitu edo WhatsApp bidez idatzi ahal izateko: 656 731 929.

«Aurten sei talde izan ditugu, txapelketa ezberdinetan; eta datorren denboraldian zortzi talde osatzea da helburua», aurreratu dute. «Beti bezala, neskek izango dute pisu gehien, eta

sei talde izatea espero dugu: bi infantiletan, bi kadeteetan, eta jubenil eta seniorretan bana».

Mutilen kasuan, berriz, senior mailako taldea izango du Hernanik datorren denboraldian ere, eta infantil edo kadete mailako talde bat ere osatu nahi dute: «biak lortzen baditugu hobeto, kontuan hartuta epe ertainera parekotasuna lortu nahi dugula, neska eta mutilen taldeen artean».

Onartu dute, egungo egoeran «dena goitik behera» erori zaiela, baina ekintza ezberdinak bideratuko dituztela, boleibola sustatzen jarraitzeko. Kartelak ere jarriko dituzte kalean, neska-mutilak probatzera animatzeko: «aurreneko helburua beti izango da talde giroan gozatu eta harremanak sortzeko aukera izatea; eta ondoren emaitzak eta lorpenak suertatzen badira, primeran», nabarmendu dute taldeko arduradunek. **K**

## Bazkideei ez diete kuota kobratuko, aurten

Kuotarik ez kobratzea erabaki du Hernaniko Arraun Elkartek; eta jakinarazi du, laster irekiko dituztela instalazioak.

### HERNANI ARRAUNA

Bazkideei kuotarik ez kobratzea erabaki du Hernaniko Arraun Elkartek, «aurten bizitzen ari garen urte aldrebesa eta nahasia dela eta». Hala jakinarazi zuen klubak atzo. Hasiera batean, kobraketa atzeratuko zutela azaldu zuten, baina azkenean, erabaki dute 20 euroko kuota hori ez kobratzea.

Horrek guztiak ez du klubaren jarduna etengo, ordea; eta

adierazi du, zuzendaritzak lanean jarraitzen duela: «datorren denboraldian gure ontziak berriro uretan ikusteko ahalegin guztiak egiten ari gara. Espero dugu, datorren denboraldian ere zuen babesaz izatea».

Bazkide kuota ez kobratu arren, inork bere laguntza eman nahiko balu aurten, bi bide jarri dituzte eskura: 3008 0170 1114 5861 5125 Rural Kutxako kontu korrantea; edo Bizum bidezko ordainketa 679 219 342 telefono zenbakira. Izen-abizenak ere jartzea eskatu dute.

Klubak jakinarazi du, azkenik, protokolo bat osatu duela, bere jarduerari berriro heltzeko; eta Udalaren oniritzia ere baduela. «Laster izango da martxan, Elorribiko egoitza ere». **K**

ZUZENEAN ➔ 1

**50**  
URTEURRENA  
**GALARRETA**

**ERREMONTE TXAPELKETA**  
Hernaniar guztiak beharapena (sarrera:5€)

EKAINA **20** Larunbata  
16:00

1	URRIZA ZUBIRI	VS	JUANENEA ENDIKA
2	GOIKOETXEA V BARRENETXEA IV	VS	ANSA II LARRAÑAGA
3	SEGUROLA ARRUARTE	VS	ETXARRI AIZPURI III



## 'Viaje al centro de los sueños', Hegoamerika eta Ertamerikako aldaketa garai baten argazkia

Mikel Insausti hernaniarraren historia eta bidaien kronika salgai dago jadanik Elkar liburudendan eta bertan «90. hamarkadan eta mende hasieran egindako bidaien bizipenak» jasotzen ditu.

### HERNANI LIBURUA

Mikel Insausti hernaniarrak 90garren hamarkadan eta mende hasieran Ertameriketara eta Hegoamerikara egindako bidaien bizipenak jaso ditu 'El viaje de los sueños' liburuan. Liburua Hernaniko Elkar liburudendan dago dagoeneko salgai eta bizipen pertsonaletik Latinoamerikako herrialde desberdinen erradiografia sozial eta politikoa jasotzen du. «Aldaketa eta mugimendu sozial eta politiko asko izan zen garaia da igar nituen herrialde horietan».

Insaustik 90eko hamarkadan Erdialdeko Amerikan igaro zituen bi aldi kontaktzen ditu, El Salvador eta Guatemala mugimendu gerrillarien eta AEBetako gobernuak finantzatzeko eta hornitutako armaden arteko gatazka armatuetan murgilduta zeudenean. Hamarkada bat geroago, egileak ingurumena eta gizartea esploratzeko bidaia luze bati ekin zion Hego Amerikako kontinentearen sakonetik. «Borroka eta itxaropen haundien garaiak».

### Liburu hau hiru etapatan idatzi da

Lehen eskuizkribua, 1991n eta 1992an Erdialdeko Amerikara egin zituen bi bidaia luze kontaktzen ditu. «Hamarkada horren amaieran idatzi nuen, gaixotasun batek eguneroko zereginetatik urrundu ninduela aprobetxatuz. Une historiko bat gogoratuz, 90eko hamarkadaren hasiera, Erdialdeko Amerika gatazka zibil armatuen hamarkadak atzean uzten hasi zenekoa, idazteari ekin nion».

Garai nahasiak izan ziren. Sobietar Batasunaren desagertpenak, San Salvadorren jakin zuena Insaustik hain zuzen ere, joko geoestrategiko guztia aldatu zuen Erdialdeko Amerikako taulan. «AEBei jada ez zitzaizkien interesatzen diruz eta irudiz garestiak ziren gerrak finantzatzea, eusten zien gobernuak giza eskubideak urratu zituztelako».

El Salvadorren, 1989an FMLNren gerrilla erasoaldien ondoren, «gatazka ezin zen militarri konpondu, eta gatazkan zeudenak Bake Akordio bat negoziatzen ari ziren, eta akordio hori berresteko aukera izan nuen 1992ko abenduan» dio bidaiari hernaniarrak.

«Azken sarraskia 1989. urteko azaroaren 16koa izan zen. Ejerzitoaren, talde militar batek hil zuen Ellakuria, beste bost apaizekin, etxeoandrearekin eta honen alabarekin batera, San Salvadorko unibertsitatean (UCA) egindako eraso batean. Ondoren, Insausti Guatemalan egon zen urteetan bake negoziatioak hasiberriak ziren, «baina baldintzak ematen hasi ziren, nazioarteko komunitatearen ikuskaritzarekin, herrialdetik Mexikora ihes egin zuten milaka errefuxiatuaren itzulerarako, euren bizitzak salbatzeko».

El Salvadorrek kanporatua ere izan zen et Guatemala joan zen derrigorrez El Salvadorretik irten eta gero. «Honela, bi errepublika hauetan itxaropen garai bat irekitzen zen, indarkeriazko hamarkadek, era askotako diktadorek eta injustizia sozial sakon eta errotuak gogor zigortuak. Zoritxarrez, urte batzuk geroago, beste indarkeria-, de-

linkuentzia- eta estortsio-mota batzuk sortuko ziren eta jarraitzen dute» dio Insaustik.

### Liburuaren bigarren zatia Hegoameriketara, Foro Sozialean partehartuta


Liburuaren bigarren zatiaren zirraborra 2006an idatzi zuen eta zortzi hilabeteko bidaia bat kontaktzen du, 2005ean «Hegoamerikako hainbat herrialdetara egin nuena, Brasil eta Paraguaiako Errepublikan hainbat urtez bizi izan ondoren, lan eta aktibismo sozialagatik».

Brasilen eta Paraguan bizi ziteak bi herrialdeen eta kontinentearen konplexutasunera hurbiltzeko aukera eman zion, baina Brazilian eta Asuncionen bizi izan ondoren, «Lokatzetara jaitzi» behar zuela sentitu zuen, Hego Amerikako errealitate sakonena eta urrunena ezagutu behar nuela, txikitatik neukan kontinentea. Hiri haundiak utzi eta herri txikiagoa mugitu zen liluratuta Porto Alegreko Foro Sozialean parte hartu ondoren.

«Foro Sozialean ezagututako bi aktibistak lagunduta Argentina eta Txilera joan nintzen hango giroa ezagutzera» leku batetik bestera, eta kontinentean herrialdez herrialde, beti politik bidaiatzen saiatuz: lehorretik, itsasotik edo ibaitik.

Liburuaren bigarren zati honetako kapituluak kronologikoki eta herrialdeka antolatuta daude, trazatutako ibilbideari jarraituz. Horregatik, herrialde batzuk errepikatu egiten dira liburuan zehar, «nire bidean sartu eta atera egiten bainintzen, beste muga batetik berriro sartzeko. Argentina eta Txileren kasua da, Patagoniatik iparralderantz igotzen denean, herrialde baten eta bestearen arteko muga zeharkatzea baita bidaiatzeko modurik naturalena».

Mende honen hasiera aurre-rapen sozial haundien garaia



Mikel Insausti liburu irakurtzen.

izan zen eskualdeko herrialde askotan. Luiz Inácio Lula da Silva Brasilgo presidente aukeratzeak inflexio-puntu bat eta itxaropen berri bat ekarri zituen, politikaren bidez jendearen bizi-baldintzak hobetu zitezkeelako ustean.

### Indigenen eta mehatzarien martxan parte hartu zuen Bolivian

«Hala ere, gatazka sozial eta kulturek oso ezkutuan jarraitzen zuten beste herrialde batzuetan, Bolivian adibidez, non

lehen lehen presidenten baten erorketa bizi izan nuen, meatzarien eta indigenen bultzadaren aurrean, erorarazi nahian».

Argentina krisi ekonomiko, sozial eta instituzional sakon batean murgilduta zegoen, 2001eko corralito-aren ondoren, eta Txilek, ekonomikoki egonkorra bazen ere, gatazka sozial larbatuekin jarraitzen zuen (gutxiengo etnikoen integrazioa, adibidez).

«Herrialde horiek guztiek osatu zuten nire bidaia hegoamerikarra». K

A portrait of an elderly man with white hair, wearing a light blue shirt and a grey sweater, against a blue background. Two large white curved shapes are overlaid on the image, containing text.

**“Ikasi dut gure  
adinekoak  
zaintzea  
inoiz baino  
beharrezkoagoa  
dela”.**

**José Luis Elosua**  
NAGUSILAN

**Adinekoak.** Gure  
adinekoak inoiz ez dira  
gaur bezain 'gureak' izan.  
Eta zaindu egin ditugu,  
ahaztu gabe gure  
gizartearentzat zer esanahi  
daukaten. Eta beti  
pentsatuz egunen batean  
gu beraien izango garela.

**#AurreraEgitekoGogoratu**

Asko ikasi dugu.  
Ez dezagun ahaztu.

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA ORAIN**  
Es futuro